

FUNTSEZKO JARDUERAK

Atal honek funtsezko baliabideak atalarekin lotura handia du. Bertan aipatu dugun bezala, taldekideon abileziak eta gaitasunak praktikan jartzea ezinbestekoa izango da. Enpresa edo negozio hau guk sortuko dugunez, hasieratik gu arituko gara lanean. Horretarako taldekide bakoitzari lanpostu bat egokituko zaio, honako hauek zaletasunen eta abilezien arabera ezarriak izango dira.

Asierrek publizitatea egiteko gaitasun handia duenez, bera izango da herrian bezeroak lortzeaz arduratuko dena. Herrian zehar jarriko ditugun kartelak sortzeko, lokalean izango dugun inprimagailua eskuragarri izango du. Kartelak atentzioa deitu dezaten arduratzeaz gain, toki estrategikoetan txertatzeaz ere arduratuko da, hau da, herrian gune berezi batzuk daude kartelak itsasteko, baina batzuk beste asko baina hobekak dira. Kartel hauetan gimnasioaren ordutegiak eta negozioaren informazio orokorra egongo da, baita egingo ditugun eskaintza puntualak ere.

Sare sozialak berriz, etengabeko ardura behar dute eta baita ia egunero eguneratzea



ere. Bertara zalantzak, kexak eta kritikak iritsiko dira, baina honako hauei erantzuna emateaz taldekide guztiok arduratuko gara. Publizitatearekin jarraituz, Asierrek egunean zehar ateratako argazki batzuk igoko ditu. Garai berezietan, gabonetan esaterako, beharpenen berri emateaz arduratuko da, eta ohiko prezioa eta beharpena ondoan itsatsita igoko ditugu konparazioa ikus dezaten. Guzti honez gain gure materialaren eta gunearen argazkiak igotzea ezinbestekoa izango da, izan ere kontua jarraitzen duenak jakin beharra du nolakoa den gure gimnasioa.

Webgunearen arduraduna ere Asier izango da. Hasiera batetik "Dominios.es" webgunean gure webgunea sortuko dugu. Beraz, Asierri bertara noizbehinka berriren edo argazki berriren bat igotzea egokituko zaio.

Oier berriz, diru kontuetan oso abila denez eta pazientzi handia duenez, sarreran egongo dena izango da. Bertan zintzotasun osoz bezeroenganako arreta beteko du. Egun guztia zalantzei erantzuna ematen egongo ez denez, diru kontuez ere arduratuko da. Bere gelatxoak leihatil bat, mahai bat, ahulki bat, eta gailu elektronikoak izango ditu. Diru kontuez ere arduratuko dela esatean, honako hauetaz arduratuko dela esan nahi dugu; errenta, materialen ordainketa, bezeroen ordainketak... Guzti honez gain, diru-laguntzak lortzeaz ere arduratuko da. Norbaitek diru sarrerak eta ordainketak zaintzea guztiz beharrezkoa da, eta lan hau ez dugu uste beste baten eskuetan uztea ideia hona denik.

Unaxek eta Mikelek berriz, antzeko zaletasunak dauzkate. Honako hauetako batzuen artean kirolarekiko duten zaletasuna dago. Beraz, kirola atsegin dutenez monitore postua egokituko zaie: hauen egin beharra, bezeroei klaseak ematea eta beraien beharrak asetzea izango da. Horrez gain, kirol arloarekiko ikasketa ugari egin dituztenak dira; ikasketa horien artean, goi errendimenduko kirol masterra (COE), jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zientzia Lizentziatura... egongo lirakeke. Mikel erdi-mailako pertsonen laguntzen espezializatuko da, eta Unaxek berriz maila altua duten pertsonekin ibiliko da. Makinak ere goitik behera

ulertzen dituzte eta ikaragarri gustatzen zaie honako hauen funtzionamenduaren berri izatea. Funtzionamendua ulertzeaz gain makinaren zaintzan onak dira, hau da, egoera onean mantentzea ezinbestekoa dela diote. Beraz, mantenimenduaz ere beraiek arduratuko dira. Arlo honekiko ikasketak ere badituzte, mantenimenduko goi-mailako zikloa dute.

Gure gimnasioan bakoitzak egin behar batzuk edukiko ditu, eta hauek ondo zuzentzen baditugu, errazagoa izango da gure lana aurrera eramatea. Orokorrean, bakoitzak bere lana ondo betez gero proiektua bide honetik joango dela aurreikutsen dugu, elkarren artean lana ondo banatuz eta burutuz.